



MACARENA GÓMEZ AKTOREA DA PROTAGONISTA 2022 BELDURREZKO ASTEAREN KARTELEAN

- *Aktorearen ilustrazio bat da, Carlos Fdez (Penrider) egina, Donostiako Fantasiako eta Beldurrezko 33. Astearen irudia*
- *KOLDO MITXELENA Kulturuneak (KMK) eta Donostia Kulturak / Beldurrezko Asteak, Donostia Zinemaldiarekin lankidetzan, Luis Gascari eskainitako erakusketa bat antolatu dute*
- *Hermenaute argitaletxeak Asterako liburu bat kaleratuko du zinemako kanibalismoari buruz Antonio José Navarrok idatzia*

Macarena Gómez aktorea izango da datozen hilabeteetan Donostiako Fantasiako eta Beldurrezko 33. Astearen irudi ofiziala. Astea urriaren 28tik azaroaren 4ra bitartean izango da aurten.

Macarena protagonista duen ilustrazio bat da, **Carlos Fdez (Penrider)** marrazkilariak egina, 2022 Astearen irudia. Bertan, armiarma batek ere protagonismo berezia du, zinemaldi honen ikurra bere hasieretatik.

Arteuparte Estudio arduratu da kartelaren koordinazioaz eta diseinuaz.

Macarena Gómez azken urteotako Espainiako fantasiako zinemaren aktore adierazgarrienetako bat da. Hainbat pelikulatan lan egin du –**Platillos volantes** (Óscar Aibar, 2013), **Las brujas de Zugarramurdi** (Álex de la Iglesia, 2013) eta **Pieles** (Eduardo Casanova, 2017)– eta pelikula hauekin izan da Asteak: **Dagon** (Stuart Gordon, 2001), bere lehenengo lanetako bat, eta **Musarañas** (Esteban Roel eta Juanfer Andrés), 2014ko edizioari hasiera eman ziona.

Carlos Fdezek dio: *“Lan hau egiteko zerbait aztoragarria nahi genuen. Proba batzuen ondoren aurrez aurreko plano txundigarri bat aukeratu genuen, Macarenaren begiradak, ikusleari zuzenean begira, ilustrazioari indar guztia emateko”.*

MACARENA GÓMEZ

Aktore gisa duela 20 urte debuta egin zuenetik, Macarena Gómezek 80 proiektutan baino gehiagotan parte hartu du zineman, telebistan eta antzerkian, eta berrogeita hamar bat sari eta nominazio jaso ditu lan horiengatik, Goya sarietako Emakume Aktore Onenaren nominazioa barne, **Musarañas**en egiten duen paperagatik.

Hamabi denboraldi daramatza protagonistetako bat izaten Espainian den telesail arrakastatsuenetako batean, **“La que se avecina”**-n (2007-), eta duela gutxi protagonista izan da HBOko **“30 monedas”**-en (2020-), Álex de la Iglesiaren zuzendaritzapean berriro jarri zen sailean, **Las brujas de Zugarramundi** eta gero; 2. denboraldia filmatzen ari da orain.



**Fantasiako eta Beldurrezko
Zinemaren Astea**
**Semana de Cine
Fantástico y de Terror**
**Horror and Fantasy
Film Festival**

CARLOS FDEZ (PENRIDER)

penrider.com

1980an Madrilén jaioa, Arte Ederretako ikasketa ofizialik egin gabe ilustrazio eta komiki ikastaro batzuk egiten ikasi zuen marrazten, Madrilgo Marrazketa Profesionaleko Goi Mailako Eskolan (ESDIP) eta batez ere modu autodidakta batean ordu asko emanda.

Nolabaiteko nabaritasuna lortuta eta sare sozialek lagunduta, hainbat erakusketa kolektibotan parte hartu du eta 2020an bere lehenengo erakusketa indibiduala egin zuen New Yorkeko Haven Galleryn.

Arkatzezko marrazkian espezializatua, degradatuaren teknika baliatuz misteriozko giroak deskribatzea da bere lanaren asmoa. Munduaren ikuspegi tragiko bat eta tematika surrealista bat biltzen dituen lana da, eta bere bitartez ametsak, sentimenduak eta emozioak irudikatzen ditu. Aintzakotzat hartzen ez direnen bakardadea interesatzen zaio, eta natura, animaliak eta Lurraz haraindiko espazioa maite ditu.

Beti saiatzen da istorio txiki bat kontatzen interpretazio desberdinak jasotzera irekia dagoen amaiera batekin, era horretan ikuslea tartean sar dadin.

LUIS GASCAREN OMENEZ ERAKUSKETA

KOLDO MITXELENA Kulturuneak (KMK) eta Donostia Kulturak / Beldurrezko Asteak, Donostia Zinemaldiarekin lankidetzan, **LUIS GASCA: Komikiak eta zinema** erakusketa antolatu dute, **irailaren 8tik azaroaren 8ra zabalik Okendo Kultur Etxean**.

Luis Gasca (Donostia, 1933-2021) Espainiako komikiaren eta zinemaren funtsezko figura da, editorea, historialaria, gidoigilea eta bildumazalea, Donostia Zinemaldiaren zuzendaria (beti izango dugu gogoan 1977ko Zinemaldian **Star Wars**ek izan zuen Europako estreinaldiaren arduradun izan zelako), irudizale porrokatua, eta bere bizialdi ia osoan tebeoaren munduan jarduna.

Erakusketak, **Asier Mensuro** eta **Álvaro Pons** komisario dituenak, omenaldi bat egin nahi dio Gascak bere lanbidean eta bizitzan egin zuen ibilbideari; hark utzitako ondarearen zati handi bat KOLDO MITXELENA Kulturunean (KMK) dago.

ZINEMAKO KANIBALISMOARI BURUZKO LIBURUA

Hermenautek liburu bat editatuko du Asterako, **Antonio José Navarrok** idatzia eta zinemako kanibalismoari eskainia; 2022ko Astearen programazioan jasoko den gaia, alegia.

Antonio José Navarro zinemako kazetaria eta idazlea da, eta aspalditik aritu da Astearen argitalpenetan kolaboratzen, besteak beste, **American Gothic. El cine de terror USA 1968-1980** (2007) liburu kolektiboaren koordinatzaile gisa eta **Líbranos del mal. Un estudio cultural del cine de posesiones demoníacas y exorcismos** (2021) liburuaren egile gisa, iazko Asterako Hermenautek editatua. Oraingoan saiakera bat idatzi du, fantasiako zinema bere historian zehar kanibalismoaren gaiari hurbildu zaion moduan sakontzeko.



**Fantasiako eta Beldurrezko
Zinemaren Astea**
**Semana de Cine
Fantástico y de Terror**
**Horror and Fantasy
Film Festival**

INSKRIPZIO-EPEA 2022 ASTEAN

Ekainaren 15etik abuztuaren 15era egongo da epea zabalik datorren Beldurrezko Astean film luzeak eta film laburrak inskribatzeko. Oinarriak eta jarraibideak zinemaldiaren webgunean daude: www.sansebastianhorrorfestival.eus



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN



donostia
kultura